

# Etxeko animaliak

## ETXEKOAK



## ZAINZEKO ETA MAITATZEKO

Azken urteetan hazi egin da animalenganako kontzientzia, eta legetan ere aurrerapausoak eman dira. Urola Kostako datuak esku artean, honako errepasoa egin du HITZak //2-7



Zarautzen, astelehen arratsaldean, herritar bat eta haren lau hankako laguna atsedean hartzen. 2011n 693 etxeko animalia zituzten alta emanda; 2021ean, 1.120, gehien-gehienak txakurrak. HITZA

## IZAKI BIZIDUNAK BAINO ZERBAIT GEHIAGO

*Urtarriletik hona animaliek babes gehiago dute legeen aldetik. Izan ere, jada ez dira objektuak edo gauzak, eta gainera, eskubide propioak izateko bidea zabaldu berri dute Espainiako agintariek. Eskualdeari begiratuta, azken urteetan nabarmen ugartu dira etxeko animaliak.*

**P**asa den urtarrilaren 5etik etxeko animaliak ez dira gauza edo objektuak. Bai, harrigarria bada ere, halaxe interpretatzen zituen Espainiako Kode Zibilak duela gutxi arte. Orain, familiako kideztat hartuak dira, eta legez debekatuta dago haien

abandonua edota mina eta sufri-mendua eragitea. Era berean, galdutako maskotak aurkitutakoan haien jabeek itzuli behar zaizkie.

Animalien izaera berria arautzeko legea eguneratzean aldagai gehiago ere hartu dituzte kontuan; izan ere, Hipoteka eta Prozedura Zibilaren legeetan ere egin dituzte moldaketak. Gauzak ho-

rrela, animaliak jada ezin dira maileguen parte izan, eta etxebizitza baten enbargua gauzatzekoan, esaterako, animaliak hortik libre geratuko dira. Bestalde, dibortzioetan maskotaren zaintzarako akordiorik ez badago aldean artean, epaile batek ebaztiko du banaketa familiaren eta animalien beraren ongizatea

kontuan hartuta. Aipaturiko al-daketa horiek guztiak iazko

**2021a amaitzerako 13.012 animalia zeuden alta emanda Urola Kostan, %98 txakurrak**

abenduan onartu ziren Espainiako Diputatuen Kongresuan ia al-

derdi guztien babesarekin, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, urtarril hasieran sartu ziren indarrean.

Baina, horrek guztiak, zenbat maskotari eragiten dio gurean? Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorretik ateratako datuen arabera, 2021a amaitzerako 13.012 animalia zeuden alta emanda Urola Kostan, %98 txakurrak. Dena den, katuak, hudoak, mapatxeak, hegaztiak, narrastiak eta untxiak ere badira etxeko animalien artean.

Maskota kopuruaren datuak aipatuta, esan beharra dago, azken hamarkadan nabarmen hazi dela urtetik urtera erregistratutako animalia kopuru hori. Iaz 1.120 alta egon ziren –pandemiako lehen urtean, 2020an, emandakoen antzeko kopurua–.

**(Laugarren orrialdean jarraitzen du)**

**Katu Horia**  
albaritza klinika

ESTROPALARI, 10 • 20810 ORIO  
Tel.: 943-11 66 99 Larrialdiak: 668 89 11 29

Zaldiz paseatzea • Ekitazio klaseak • Kanpamentuak  
Lehiaketak Zalditerapia • Zaldikoak heztea  
Zaldien apopilotza

Barrio Urdaiaga 44 • 666 60 74 47  
Lartzandieta Baserria • www.larzaldiak.com  
20170 Usurbil • @ f



Viera Zarauzko ile apaindegian. Inguruko herrietatik ez ezik, Gipuzkoa osotik joaten zaizkio bezeroak kalitatezko zerbitzu onenaren bila. HITZA

## «Arraza guztiekin egiten dugu lan, eta bakoitzari onena eskaintzen diogu»

**MARCELO VIERA** • Zakurren ile apaintzailea

Zarautzen zakurrentzako ile apaindegia dauka Marcelo Vierak, eta urtero hainbat ikastaro egiten du teknika berrienak bereganatu eta bezeroei eskaintzeko. Munduko Txapelketetan ere parte hartzen du.

Marcelo Vierak sei urte daramatza Zarautzen Wau Wau zakurrentzako ile apaindegiarekin, eta izaki horiek behar dituzten zaintza asko eskaintzen ditu: ilea moztu, bainatu, azazkalak moztu, belarriak garbitu, azala zaindu... Eta aholku asko eman. Zarauzko eta inguruko herrietako bezeroez gain, Gipuzkoa osotik etortzen zaizkio bezeroak.

Artero eskolako kidea ere bada Viera: hau da, ikasleek praktikak egin ditzakete bere dendan, irakasle titulua ere baduelako. «Etengabeko formazioan aritzen gara gure lanbidean», azpimarratu du. Horrez gain, zakurren ile apaintzaileentzako munduko

txapelketetan parte hartzen du. «Probatu nuen, eta zeharo engantxatu ninduen».

**Inguru hauetan ez da ohiko ofizioa. Nola iritsi zinen horra?**

Kasualitatez hasi nintzen. Izeba batek zakurrentzako oheen fabrika batean egiten zuen lan Bartzelonan, eta Zarautzen denda irekitzea pentsatu genuen. Baina eskaera handiena zakurren ile apaintzaile arloan zegoen, eta Arteroko komertzialak esan zidan ikastaroa egin eta probatzeko. Hala egin nuen, eta konturatu nintzen gustatu egiten zitzaidala. Eta behin mundu honetan sartuta, onenekin egon nahi dut.

**Lan askorekin zabilzate.**

Bai, egunean zortzi-hamar zakur izaten ditugu, eta bakoitzarekin ordu eta erdi edo bi ordu behar izaten ditugu.

**Zein da zure estiloa?**

Ikastaro pila bat egiten ditugu, garrantzitsua delako eguneratuta egotea. Hemen ile mozketa modernoak eskaintzen ditugu, ez betikoak; zaharkituak gelditu dira horiek. Lehen rapatu bakarrik egiten zen. Orain makina oso gutxi erabiltzen da, eta guraizeekin egiten dugu ia guztia.

**Zure espezialitatea kanixek dira, ezta?**

Hala esan daiteke, bai. Ile oso moldagarria dute kanixek, eta orain asiarrak ari da modan

jartzen, eta hori eskaintzen diet bezeroei. Estilo horretan espezializatzen jarraitzen dut ikastaroen bitartez. Asiarrak estiloan, gorputz erdialdeko ilea motz uzten da, eta luzeago hanketan eta buruan. Dena den, arraza guztiekin egiten dugu lan hemen, eta bakoitzari behar duena eskaintzen diogu.

**Aldea egongo da batetik bestera, ezta?**

Bai, eta teknika guztiak erabiltzen ditugu; zakur bakoitzarentzat onena dena eskaintzen saiatzen gara. Ez dugu ilerik soilten behar-beharrezkoa ez bada. Bartzuetan ez da beste aukerarik egoten, gehiegi eskuilatzeak azala mintzen baitu. Halakoetan hutsetik hasten gara, azala zainduz.

**Kontzientzia pixka bat falta al da?**

Gu saiatzen gara jendea kontzientziazatzen, ezin baita sei hilabete edo urtebete egon ile apaintzailearengana joan gabe; bizpahiru hilabetean behin eraman egin behar da. Adibidez, ileko korapiloak kentzea garrantzitsua da, azala kaltetzen baitute horiek. Zakurra zaindu egin behar da, eta zorionez, gero eta kontzientzia gehiago du jendeak, aurrerapauso handiak eman dira azken bost urteetan; eta horretan lagundu du onartu dituzten lege berriek ere. **Zakurren ile apaintzaileentzako munduko txapelketetan ere parte hartzen duzu.**

Bai, hiru aldiz parte hartu dut jada

**WAU WAU ZAKURRENTZAKO ILE APAINDEGIA**

**HELBIDEA**

Santu Iturri kalea 7, behea (Zarautz)

**HARREMANETARAKO**

-943-05 47 95.

-wauwauaccesorios@gmail.com

-Facebook: Wau Wau Peluquería y Accesorios

**PRAKTIKAK WAU WAUN EGITEKO**

935-15 00 35

nire kanixerekin, Teo. Irudimena erabiltzeko aukera asko ematen dizu, eta engantxatu egiten du. Hurrengo azaroan izango da Bartzelonan, eta harako prestatzen ari naiz. Mundu mailako ile apaintzaileak etortzen dira, eta pandemiagatik iaz ez zen egin, baina aurrean ehunka asko elkartuko gara lehiatzen. Telebistan ere ematen dute horren berri.

**Helburu zehatzik baduzu?**

Urrea irabazi arte ez dut etsiko, kar-kar-kar!

**Artero akademiako kidea ere bazara.**

Hala da. Artero da ile apaintzaileok erabiltzen dugun kosmetika, eta aldi berean, ile apaintzaileen akademia da; eskolak ditu hainbat tokitan, eta nahi duenak bertan ikasteko aukera du. Espainian 100 kide inguru izango gara, eta Italian eta Portugalen ere baditu eskolak eta kideak. Ez da batere erraza hor sartzea, kalitate handi-

**«Ile mozketa modernoak eskaintzen ditugu, eta ilea soilten dugu soilik azala zaintzeko beharrezkoa denean»**

**«Teo kanixerekin munduko txapelketetan parte hartzen dut, eta ez dut etsiko urrea irabazi arte, kar-kar!»**


koa delako. Pentsa, Gipuzkoan hori lortu duen hirugarren ile apaintzailea naiz. Horrek esan nahi du gai naizela irakasle lanak egiteko, eta dagoeneko laupabost ikasle egin dituzte praktikak gurekin.

**Dendara gerturaten denak produktu andana aurkituko du bere zakur edo katuarentzat.**

Hala da. Kosmetika onena eta pentsu onena daukagu hemen, gizakiekin probatutakoa. Gose banaiz, lasai asko jan dezaket hemen saltzen dugun jana.

UROLA KOSTAKO DATUAK

Urtea	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Emandako altak	693	702	782	849	830	896	965	864	903	1.128	1.120



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorra. HITZA

(Bigarren orrialdetik dator)

Pandemia aurreko urtean, 2019an, berriz, 900 etxeko animalia zeuden alta emanda. Buelta horretan ibili ziren erregistro berriak bost urteko epean; izan ere, 2014tik 2019ra 800 eta 900 maskota artean eman zituzten altan urtero Urola Kostan. Hamarkada bat atzera eginda, gutxiago ziren: 700 inguru 2011. zein 2012. urteetan.

Legearen aurrean objektu izateari uzteaz harago, animaliak euren eskubide propioak izateko bidean dira. Espainiako Gobernuak otsailaren 18an egindako ezohiko kontseilu bidean sinatutako lege-aurreproiektuak ahalbide-tuko du hori. Legea Diputatuen Kongresuan tramitatu behar da, baina lehen zirraborroan helburu batzuk da-

goeneko finkatu dituzte. Hala, ezingo zaie animaliei tratatu txarrik eman eta sakrifikatu, ez eta saldu eta dendetan erakutsi. Horrez gain, maskota izan nahi duenari, jabetza arduratsuen ikastaroa gainditu izana eskatuko zaio.

**ZAINTZA**

Etxeko animaliek legearen aurrean objektu izateari orain utzi dioten arren, izaki bizidunak beti izan direla ukaezina da, eta familiar hartu dituzten pertsona gehienek ere hala hartu dituzte. Maitasuna ematen diete (eta bueltan jaso, noski), elikatu, paseatu, elkarrekin jolastu, bainatu... Zeregin politak dira horiek guztiak, gustura egiteko modukoak, baina, aldi berean, denbora ere eskatzen dute, eta nahitaez bete behar dira.

Ezin da hutsik egin txakurren

eguneroko paseoan, ez dira etxean giltzapetuta izateko animaliak. Gizakiok bezalaxe, premia biologikoak dituzte: aire librea arnasatu beharra dute, aske sentitu,

**Etxeko animalia eduki nahi duenak ikastaro bat gainditu izana erakutsi behar du laster**

**Araba, Bizkai eta Gipuzkoan txerto bakar bat ez da derrigorrezkoa; amorruren aurkakoa gomendagarria da**

eta ezinbestekoa, txiza eta kaka egin. Txakurren kasuan, etxea ez da azken behar horietarako espazioa, eta euren arduradunak diren pertsonen betebeharra ere izango da ondoren kalean egindako gorotz horiek jasotzea. Bigarren zeregin hori beti ez da bete-

tzen, ordea, eta berehala antzematen da. Horregatik, auzoko bizilagun askoren kexa iturri ere izaten dira txakur kakak.

Arazo horri aurre egiteko udalek sentsibilizazio kanpaina ugari egin izan dituzte. Hala, ingurumena garbi mantentzeko herritarrei kalean zaborrik ez botatzeko deia egitearekin batera, txakurra duten familiak ere interpelatu dituzte euren ardurapean diren animalien kakak jaso ditzaten. Hori gutxi balitz, bitartekoak ere jarri dituzte lana errazteko, zeren eta herri ia guztietan daude txakurren kakak jasotzeko poltsak dohain hartzeko edukiontzi bereziak.

Aitzitik, txakurrak dituztenek ere badituzte kexak. Ospakizun egunetan jaurti ohi diren petardo edota su artifizialen aurkakook, zehazki. Izan ere, kaleko jai giroaren parte diren hots horiek animalien ezinegona eragiten dute kasu askotan -zenbait ikerketen arabera, txakurren erdiak baino gehiagok diete beldurra-. Entzumena gizakiok baino lau bider garatuago dutenez, sentitiberagoak dira zarata handien aurrean, eta horrek ikaratu egiten ditu, zenbaitetan antsietateak jotzeraino.

Maskotak dituzten pertsonak animaliekiko dituzten arduretara itzulita, txertoak ere aipatu behar dira nahitaez. Egungo araudiaren arabera, txerto bakar bat ere ez da derrigorrezkoa gurean, baina txerto jakin batzuk jartzea oso gomendagarria dela

diote albaitariak. Amorruren aurkakoa, kasu. Espainiako estatuan horixe da txakurrentzat nahitaezkoa den txerto bakarra, salbu eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, Galizan eta Katalunian. Dena den, maskotarekin bidaiatzeko, izan txakurrarekin, katuarrekin edo hudoarekin, ezinbestekoa da animaliak amorruren aurkako txertoa izatea.

Maskotak bidaiari eraman ahal izateko beste baldintzak, identifikazio txipa eta pasaporte dira. Txakurrei dagokienez, guztiei jarri behar zaie mikrotxip hori, baita bidaiarik egin behar ez bada ere. Animalien larruzalaren barruan kokatzen zaie ziztada bidez, eta arroz ale baten tamaina du.

**TXAKUR PARKEAK**

Maskota lehiaketek ere baldintza jakin batzuk exigitzen dituzte parte hartzeko, eta ez dira bakarrik. Orioko txakur-gunearen erabilera arautzeko kartelak, esaterako, argi eta garbi dio: «Txakurrek identifikatuta egon behar dute, eta legez dagozkien txertoak hartuta». Muntoko eremuan dago txakurrentzako parke hori, eta ez da Urola Kostako bakarra. Zarautzen ere badira beste bi, Elizaurre kaleko txakur parkea bata, eta Abendañokoa bestea. Gehiago prestatzen ari da udala.

Dena den, txakurrentzat espreski egokitutako guneetara jo beharrik gabe, herri guztietan dira maskotek libre jolas dezaketten espaloirik gabeko espazioak. Izan zelaitxoak, edo hondartzak, udako denboralditik at.



Txakurrek lasai jolasteko hainbat gune egoki izan ohi da herrietan, eta txakurrentzako parkeak jartzen ere ari dira udalak. Orion eta Zarautzen, esaterako, badira. HITZA

# «Animaliengandik sinpletasuna, pazientzia... ikas ditzakegu»

**MARIA RUIZ DE AZUA** • Zaldi terapian aditua

Zaldi terapia eta coaching masterrak ikasi ditu Maria Ruiz de Azua Zarauzko bizilagunak, eta zaldiek haurrengan nahiz helduengan onura asko eragin ditzaketela azaldu du, batez ere aske bizi badira animalioak.

Zaldiaren Isla proiektuan buru-belarri sartuta dabil Zarautzen bizi den Maria Ruiz de Azua arrasatearra. Zaldi terapia eta coaching masterrak amaituta, 2017an hasi zen egitasmoari forma ematen Goizane Artze lankidearekin batera, eta iaz abiatu zuten. Erdi askatasunean bizi diren zaldiekin coaching, etologia eta heziketa emozionaleko saio bereziak eskaintzen dituzte.

## Zer da animaliengandik ikas dezakeguna?

Gauza ugari, baina sinpletasuna nabarmenduko nuke. Jatearekin, lo egitearekin, harremanak izatearekin eta euria egiten duenerako aterpea izatearekin aski dute bizitzeko. Animalioak orainaldian bizi dira, momentuan, depresiora eramán dezakeen iraganari eta antsietatea sor dezakeen etorkizunari jaramonik egin gabe. Ez dute presarik, eta zerbaitek gogaitzen baditu, hala erakutsiko dute neurriko erreakzioarekin; izan ere, ez dute exageraziora jotzeko beharrik, izaki gardenak dira. Gainera, erantzun horietan ez dago epaiketarik, unean uneko nahia (edo ez nahia) baino ez dute azaltzen. Gizakiak gara epaiketetan oinarritutako harremanak ditugunak.

## Animalia guztietan da horrela?

Ezaugarri horiek guztiak askatasunean bizi diren animalietan dira agerikoagoak, lotuta bizi direnek gizakion jarrerak hartzen baitituzte. Esate baterako, ezin dute, gosea dutenean, gogoak ematen diena eta nahi adina jan, botatzen zaienean jan behar dute. Horrez gain, era batera edo bestera jokaturik gauza bat edo beste lor dezaketela ere ikasten dute.

## Halere, etxeko animaliekere badituzte onurak. Txakurrekin, esaterako, egiten dira terapiak.

Bai, noski. Badira etxetan espazio irekietan baino hobeto bizi di-

ren animalioak; txakurrak eta katuk, kasu. Animaliek gizakiok baino gaitasun handiagoa dute barne sentimenduetara iristeko: kanpotik bestelako irudi bat erakutsita ere, gai dira sakonera iristeko; ezin dira engainatu. Guk erdi askatasunean bizi diren zaldiekin egiten dugun lan, iruditzen zaigulako konexio emozional hori handiagoa dela. Izan ere, ez daude lehen aipaturiko gizakion jarrerekin kutsatuta.

## Nolakoak dira eta zer lortzen duzue zaldiekin egindako terapia horietan?

Helduekin coaching saioak egiten ditugu; barruan gordeta duten hori azaleratzea ahalbidetzen dute saio horiek. Zaldien aurrean jartzen ditugunean intuizioz jotzen dute, eta bizi-sena gailentzen da, ez baitakite animalioak nola erantzuniko diren mugimenduei. Horrek pertsona bakoitzaren ohiko jokabide ereduak argitara ematen ditu, eta, beraz, nor bere burua hobeto ezagutzen lagundu. Behin erreferentzia hori izanda, beren jokabideak beste era batera kudeatu ditzaketela ikasiko dute.

## Eta umeekin?

Harreman emozionalak garatzeko zailtasunak dituzten umeekin egiten dugu lan; etologia eta heziketa emozionaleko saioak izaten dira. Helduekin zein umeekin zaldi gainera igo gabe egiten dugu lan, helburuak lortzeko ez dagoelako horretarako beharrik. Zaldi terapia bestelakoa da; horretan bai, zaldi gainera ibiltzeko lagungarri direlako mugimenduak arazoak dituzten umeentzako. Dena den, Zaldiaren Isla proiektuan momentuz ez dugu zerbitzu hori eskaintzen, nahiz eta bi kideok horretarako behar diren ikasketak burutu ditugun.

## Saio horiek taldean ala bakarka egiten dituzue?



Ruiz de Azua. HITZA


Bi aukerak eskaintzen ditugu, baina orain arte taldeko saioak egin ditugu batez ere. Helburu zehatzetarako oso eraginkorra da coaching-a, talde kohesioa lortzeko, blokeo egoera baten aurrean arazoa non dagoen identifikatzeko... Egun bakarrek saioak izaten dira, 6 edo 8 ordukoak, baina esperientzian oinarritzen direnez, bizitakoa momentuan barnatzen da, ez dago gehiago ikasi beharrik, zuzenean txertatzen da burmuineko sistema linbikoan. Adibidez, lurrera lehen aldireror-tzen garenean, hori gertatuta mina hartzen dela ikasten dugu; ez dugu berriro erori beharrik mina hartuko dugula jakiteko. Bada, zaldiekin egiten ditugun tailerretan gauza bera gertatzen da. Bakarkako saioak bestelakoa dira, ez dago helburu zehatzik eta prozesu terapeutiko sakonagoa da. Gauza gehiago azalera-tzen dira eta, guk geuk, dinamizatzaileok, adi-adi egoteko aukera handiagoa dugu.

## Arrasaten duzue proiektua, ezta?

Goizaneren zaldiekin aritzen gara eta han ditugu, bai. Otsailen Debara ere iritsi ginen Lasturren saioak eginda, eta Zarautzera hurbiltzeko ahaleginetan ari gara orain, zaldia erdi askatasunean dituen zalditegi baten bitartez.



# MARKETIN DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

# GUKA

## ZERBITZUAK



Soreasu 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) 943-81 38 41  
gukazerbitzuak@ukt.eus • [www.gukazerbitzuak.eus](http://www.gukazerbitzuak.eus)



Txakurrak eta katuak dira etxeko animalia ohikoena. Haien alde lanean ere badabil bat baino gehiago. HITZA

## «Europarako txartela lortzea da nire helburua»

PEDRO ETXEBERRIA • Korrikalaria

**H**amahiru urte pasatu dira Pedro Etxeberriak lehenengo aldiz txakurkroseko lasterketa batean parte hartu zuenetik. Errenterian izan zen lasterketa hura, eta lasterketa «atze samarrean» hasi bazuen ere, lehenengo postuan amaitu omen zuten lehia zumaia-rrak eta bere txakurrak.

Astean bost aldiz entrenatzen saiatzen da Etxeberria, baina «batzuetan hori lortzea ezinezkoa izaten da beste eginbehar batzuegatik», onartu du. Uda sasoi- an, mendi lasterketetan aritzen da, eta horregatik, mendian korrika eginez entrenatzen du gehienetan. Batzuetan bakarrik, eta besteetan, txakurrarekin.

Edozein txakurrek har dezake parte txakurkrosetan. Etxebe-

riaren iritzi- z, ordea, bada garrantzitsua den ezaugarri bat: tiratzea eta korrikalariaren aurretik joatea. «Ezaugarri horrek asko laguntzen dio korrikalariari». Hala ere, txakurrarekin korrika egitearen alde errazena eta zailena ere bide horretatik doazela aitortu du zumaia-rrak: «Lasterketak lauak direnean txakurrak tira egiten duenez, erraz hartzen da abiadura handia, baina gero abiadura hori mantentzea zaila egiten da».

Aurtengo txakurkros denboraldian Burgosen (Espainia) gauzatuko den kopako lasterketa geratzen zaio, nahiz eta Euskadiko Ligako lasterketa batzuk ere egingo dituzten. Etxeberriak garbi du helburua: «Espainiako eta Kopako txapelketan ondo ibiltzea, Europarako txartela lortu ahal izateko», zehaztu du.



Pedro Etxeberria zumaia-rra, artxiboko irudian, elurretan txakurkroseko lehia batean parte hartzen. UTZITAKOIA

## ANIMALIAK ADINA HARREMAN MOTA

*Batzuek txakurrarekin egiten dute korrika txapelketetan; beste batzuek bertako arraza mantentzeko lanean dihardute; badira kaleko katuentzat etxea aurkitzen dabilzanak; eta baita etxaurrean era guztietako animaliak edukitzeak poztasuna ematen dietenak ere.*



Saray Uranga Arroako bizilaguna. UTZITAKOIA

«Saiatzen gara adopzioak bilatzen»

JOAQUINA RAMILLO  
Katulagun elkarte



Josu Lizasok era askotako abereak ditu Aian. UTZITAKOIA

«Ikerketaren emaitzekin jakingo da egoera zein den»

SARAY URANGA • Artzain txakur elkarte

**E**uskal Artzain Txakurren Adiskideak Elkartearen kidea da Saray Uranga Arroako bizilaguna. 2016an hasi ziren elkartzen arraza horretako txakurrak zituzten hainbat lagun, artzain txakur «oso gutxi» gertzen zirela eta kezkatuta. Bi arraza mota daude euskal artzain txakurren barruan: iletsua eta Gorbeakoa.

Urangak azaldu duenez, arraza batek, galzoritik libre egoteko, ugaltzeko gaitasuna duten 1.000 eme eta 20 ar behar ditu, eta euskal artzain txakurrak ez dira kopuru horietara iristen. Horregatik, arraza hori indartu nahian, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera ikerketa genetikoak abiatu zuten. Txakurrei odol laginak atera eta azterketa genetikoak egiten dute. «Endogamia maila

zenbaterainokoa den jakin nahi dugu ikerketa horrekin». Horrez gain, azoketara joaten dira, bertan mahaiak jarri eta kamisetak nahiz pegatinak salduta, elkartearen finantzatu ahal izateko. Gainera, arraza horretako txakurrekin interesa duen oro artzainekin nahiz txakur-hazleekin harremanetan jartzen dute.

Elkarteko kideak etorkizun «gordina» ikusten dio arrazari, baina era berean, «oso zaila» iruditzen zaio zer pasatuko den aurreikustea: «EHUko kideekin batera egiten ari garen ikerketaren emaitzak jakitean ikusiko dugu benetako egoera zein den eta zein gurutzatze egin behar ditugun». Bitartean, ordea, arraza horretako txakurrak dituen edonor elkartearekin harremanetan jartzera «animatu» nahi du Urangak [eataelkarta.org](http://eataelkarta.org) webgunearen bitartez.

**O**rain bost urte erregistratu zen elkarte gisa Katulagun irabazi asmorik gabeko Katuak Kudeatzeko Azkoitiko Elkarte, eta ordutik Azkoitiko herriko koloniak osatzen dituzten katuak zaintzen dituzte. HEA protokoloa jarraituz (Harrapatu, Esterilizatu, Askatu) herriko kolonietako katuak albatariarengana eramaten dituzte esterilizatzeko. Ebakuntza egin eta hamabi ordu pasata, jatorrizko kolonietara itzultzen dituzte. Joaquina Ramillo elkartearen presidentea azaldu du elkartearen helburua: «Kolonien tamaina txikitzeko eta kontrolatzeko helburuarekin katuentzako adopzioak bilatzen ahalegintzen gara».

Katulagunek tramitatzen dituen adopzio guztiak kontratu bitartez egiten dituztela azaldu du Ramillok, eta katuak osasun eta garbitasun egoera onean ematen dizkietlae horiek adopzioan hartzen dituztenei.

Datuei begira jarrita, pasa den urteko udan hiru kolonia berri esterilizatzen hasi zirela azaldu du Katulaguneko presidentea. 2021. urtean, guztira, 15 katu antzutu zituzten, eta 29 katu adopzioan eman zituzten.

«Animaliak zaindu eta arraza hobetzea gustatzen zait»

JOSU LIZASO • Animalia zalea

**B**ehiak, idiak, bufaloak, ardi arraza desberdinak, oiloak, ahateak, zaldiak eta astoak ditu, besteak beste, Josu Lizasok Aiako lurretan; «guztira zenbat animalia diren ez dakit, baina batzuk bai».

Aitarengandik dator kio animaliekiko afizioa Lizasori, baina aitak baino are afizio handiagoa duela uste du berak. Etxea beti ezagutu izan du animaliekin, eta «animalia tartean jaiotakoa» dela aitortu du.

«Ahal den neurrian», zelaian eta kanpoan izaten ditu animaliak. Neguan, berriz, ukuiluan babestuta. Landa etxeko lurretan ditu animaliak Lizasok, eta lur horiek errepide ondoan daudenez, jende «asko» joaten da inguruetatik animaliak ikustera. Gainera, hainbat eratako azoke-

tan ere parte hartzen du, eta horietan erakusgai izaten ditu bere abereak.

Animaliak «ahalik eta ondoen» zaintzen saiatzen dela azpimarratu du Lizasok, hala nola, albatariaren laguntzak jasoz eta animaliei txertoak jarritz eta botikak emanez. «Animaliak zaintzea eta euren arraza hobetzea gustatzen zait», ziurtatu du animalia zaleak.

Kritikak ere baditu, batez ere agintarientzat. Izan ere, Lizasok uste du animaliak edukitzea «gero eta zailagoa» dela. «Agin-tariak gauzak zailtzen ari dira, oztopoak jartzen».

«Gastuak ere goraka doaz, eta animalistenak bezalako taldeak ere kontra ditugu», gaineratu du. Hala ere, Lizasok garbi du: «Inork animaliak ondo egotea nahi badu, horiek baserritarrak gara».

## Animalien eta Landareen Babeserako Gipuzkoako Elkarte

Irabazi asmorik gabeko elkarte gara, eta gure jardura onura publikora bideratzen dugu, Eusko Jaurlaritzak aitortu gisa. 1997az geroztik, aterpe-klinika daukagu Usurbilen, eta gure egitekoa da abandonatutako edo tratu txarrak jasandako animaliak jasotzea, zaintzea, eta haiek familiako beste bat bezala errespetatu eta maitatuko dituzten etxeak bilatzea. Proiektu honen parte izan nahi al duzu?

Gure aterpea bisitatzera gonbidatuta zaude, astelehenean larunbatera, 10:00etatik 14:00etara.



Kalezar Auzoa 84, 20170 Usurbil

Protectora de Gipuzkoa • [www.protectoradegipuzkoa.com](http://www.protectoradegipuzkoa.com) • 943-37 66 50

Email y PayPal: [refugio@protectoradegipuzkoa.com](mailto:refugio@protectoradegipuzkoa.com)




Ekain  
ALBATARI KLINIKA

Euskal Herria kalea, 34 • 20730 AZPEITIA

Tel.: 943-15 16 40

Larrialdia: 688 69 29 51



# KIMUBAT, ETXEKO LAGUNENTZAKO PRODUKTU GUZTIAK

*Paisajismoaren eta lorezaintzaren arloaz harago, Kimubat taldea hainbat arlotara zabaldu da, eta azken urteetan maskoten ongizateari garrantzi berezia ematen hasia da. Hala, animalientzako hainbat produktu ditu, baita txakurrak garbitzeko leku berezia eta ile apaindegi zerbitzua ere.*



**K**imubatek hiru hamarkadako eskarmentua du paisajismoaren eta lorezaintzaren munduan lanean eta zerbitzuak eskaintzen. Lantalde zabala du, askotariko diziplinak menperatzen dituzten langileekin eta teknikariek osatua. Azken urteetan, ordea, animalien mundura zabaldu ditu ateak, eta hainbat eskaintza, zerbitzu eta produktu eskaintzen ditu Kimubatek gaur egun.

Hala, **animalientzako produktuen gunean** txakurrek, katuek, untxi eta karraskariek, lumadunek eta arrainek behar duten guztia aurki daiteke. «Animalien produktuen txokoa kalitatezko elikagaiak, pentsuak, haziak, arropa eta osagarriak, etxetxoak, jostailuak, kuxin eta oheak, garbitasunerako tresnak, eta abar aurkituko dituzte bezeroek. Kalitate eta prezio desberdinetako aukera zabala dugu Kimubaten. Era berean, animaliak etxean dituztenentzako beharrezko informazioa eta aholkularitza ere eskaintzen dugu. Gure laguntxoek

hoberena merezi dutelako», esan dute arduradunek.

## ILE APAINDEGIA ETA GARBIKETA TXOKOA

Bestalde, **garbiketarako txokoa** eta ile apaindegia ditu Kimubatek. «Animalien ongizateari garrantzi berezia eman nahi diogu, eta horregatik, edozein herritarrek bere txakurra edo maskota ekar dezake eta horretarako prestatuta dugu gure eremuan garbitu. Hori egin ahal izateko bainua, ur beroa, lehorgailua, xaboia eta beharrezko guztia aurkituko dituzte gure instalazioetan», agertu dute arduradunek. Norberak bere maskota 8 euroren truke garbitu dezake.

Horrez gain, **ile apaindegi zerbitzua** ere badute Kimubaten. «Ile apaindegiaren zerbitzuen prezioa txakurraren pisuaren arabera da, eta 15 eurotik hasita garbiketa eta ile mozketa lanak egiten ditugu», azaldu dute. Zerbitzu horiek erabili nahi dituzten herritarrek Kimubatera deitu

behar dute -943-15 00 85 telefono zenbakira- txanda hartzeko, beti ere, astelehenetik ostiralera, goizeko eta arratsaldeko ordutegian.

Azken urte hauetako berrikuntza gisa, arrainen salmenta ere badute Kimubaten. Kolore eta neurri desberdinetako arrainak dituzte, ur hotzekoak. Arrainez gain, horientzako ontziak, argiak eta bestelako osagarriak ere badituzte bertan.

Kimubatera bertaratzen diren herritarrek, beraz, produktu eta zerbitzu eskaintza zabalena aurkituko dute beren etxe maskotarentzat.

**Animalien txokoa sortu du Kimubatek, eta bertan, garbiketarako txokoa eta ile apaindegia ere baditu**



**KIMUBAT**  
— PAISAIA



**Kimubat Taldea**  
Urrestilla bidea z/g · Azpeitia  
943 15 00 85  
kimubat@kimubat.eus  
www.kimubat.eus